



Bata bestearen atzean jarri eta upeletik nahi beste sagardo edan ahal izan zen.



Bazkaldu aurretik, bertso bana bota zuten Lizasok, Lujanbiok eta Egañak.

Bihartik aurrera, txotxetik

SAGARDOA. Sagardotegi garaiari ohorezko hasiera eman dio Martin Fiz atleta arabarrak. Aspaldiko sagardo onena dela diote egileek

Jon Urbe / ARRAZKI PRESS

Sagardoa urte osoan edatekoa dela diote behin eta berrito sagardogileek, urtaro jakin bateko edari bilakatzeko arriskua saihesteko edo. Sagardozaleak, ostera, ilusio bereziarekin zain egoten dira txotx garaia noiz hasiko, agunartean sagardotegietara joan eta neguko gau luzeak motzago egiteko. Ez dezatela gehiago sufritu, urtaril erdialdearekin batera beren garaia iritsi baitzaie: txotxeko denboraldia hemen da.

Azken urteotan ohitura bilatu denez, Astigarragako

sagardogileek pertsona ospetsu baten laguntzarekin eman zioten hasiera txotxeko denboraldiari. Aurten ere kirolari bat izan zen Petritegi sagardotegiko ekitaldian: Martin Fiz atleta arabarra, hain zuzen ere. Kamera ugarien aurrean lasai, begirada lotsatiarekin, «hau da Astigarragako sagardo berria» esan, eta lehen tragoa edan zuten Fizek 2001. urteko uztako sagardotik.

Keinua beste bi aldiz egin behar izan zuen Fizek, argazkilariek hainbat plano lortzeko aukera nahi baitzuten. Adituen aholku guztien aurka, kameraren aurrean luze egotearen ondo-

rioz edalontzia bete-betea zuen maratoilariak: eta Andoni Egaña bertsozale-sagardozaleak ez zuen aukera galdu Petritegiko upelen arteko agurrezko bertsoetan:

*Hemen bertsoak eskaintzeko ere
bagendun borondatea,
baina hemen ere nabarmentzen da
zer den atleta izatea
gure basoak hustuak daude,
martin, zurea bete.
behin honez gero onena degu
bazkaltera joate*

Iaz, lehen upela irekitzeko ohorea izan ondoren, Joane Somarriba txirrindulari bizkai-

tarrak eskatu zuen sagardoak «Tourra irabazteko indarra» eman ziezaion. Fizek azken uztako sagardoa dolareetan zegoela utzi zion modu profesionalean korrika egiteari azaroan. Donostiako maratoian—, baina, atzo onartu zuenez, bere prestaketarako erabili izan du, maite duen Arabako Errioxako ardoarekin batera. «Aspaldi hasi nintzen sagardoa edaten: aitagarreba Elgetakoa eta amagarreba Mutrikukoa izanik, haien konfiantza lortzeko edan behar bainuen. Gainera, denboraldiaren hasiera Lasarteko Krosaren garaian izaten zenez, beti etor-

tzen nintzen Diego Garcia adiskidearekin».

Petritegin bildutako ohorezko gonbidatuak, Euskal Herri osoko sagardogileek eta kazetariek nahi beste edateko aukera izan zuten, baina besteek bihar arte itxaron beharko dute, orduan irekiko baitituzte Astigarragako eta inguruko herrietako (Urnietako, Hernani eta Donostia) sagardotegi gehienak.

«Azken urteotako sagardo onena»

Joxe Angel Goñi Astigarragako Sagardogileen Elkarte bozeramailearen arabera, aurten sagardoa «azken urteotako onena» izango da. Arrazoiaren artean dago iazko eguraldi epe-lari esker bi loraldi izan dituzte-lagastiek. Horregatik, sagasti batzuk urrirako zeuden jasotzeko helduak, eta besteak, berriz, azarorako. «Eta sagarra ona denean, sagardoa ere bai», ziurtatu zuen Goñik.

Astigarragako 17 sagardogileek erabili dituzten sagarren %40 bertakoak izan dira, eta gainontzekoak ohiko lekueetatik ekarri behar izan dituzte: Galiziatik, Normandiatik eta Ingalaterratik, batik bat.

Hori-berde kolorea izango du aurten edariak. Sagardo «alaia, edateko erraza eta atsegina» da, sagardogileen arabera, eta botilaratzen duenean emango du onena. Txotx garaia gero eta arrakastatsuagoa den arren, sagardoaren %5 baizik ez da edaten upeletik.

Gipuzkoa izan da sagardogintzari ongien eutsi dion lurraldea, bereziki Donostialdea, baina azken urteotan sagardoa egiteko ohitura berreskuratu dute Euskal Herriko beste lurraldeetan. Gipuzkoan 104 sagardotegi daude egun, eta haietatik 76tan egiten dute beren sagardoa. Beste 20 sagardotegi daude Bizkaian, 15 Nafarroan, sei Araban, bi Lapurdin eta beste bat Nafarroa Beherean.



«Hau da Astigarragako sagardoa» esanez zabaldu zuen Martin Fizek txotx garaia Astigarragan.

Jon Urbe / ARRAZKI PRESS